



Kontzertu bikaina eta omenaldi hunkigarria Lasarte-Oria V. Akordeoi Jaialdian /6

Zero Sette arkordeoi orkestrak Mariano Valles bazkidea omendu zuen. Marianok berriz, 85 urterekin, *Maitetxu* pieza eskaini zuen.



Ekitaldien artean, Mikel Kastresanari omenaldia egin zioten.

Larunbata gudarien omenean

Larunbateko goiz eguzkitsuan herritarrak Zabaletan elkartu ziren gudari eguna ospatzera

Larunbateko gudari eguna ospatu zuten herritarrek Zabaletan. Goiza 11:00etan hasi zen bertsoekin baina txalaparta, trikitixa eta txistua ere han izan ziren. Herrian ez daudenak eta haien senitartekoak ekarri ziren gogora eta Mikel Kastresana hil zutela 20 urte bete diren aste honetan berari ere omenaldia egin zioten. Gurasoei lore sorta bat eskeini zitzaizen eta agurra dantzatu zuten argazkiaren aurrean.



Medikuek txertoa jartzea gomendatzen dute konplikazioak saihesteko.

Gripearen aurkako txertoaren kanpainia asteazkenetik aurrera

Urriaren 1ean hasi eta azaroaren 15a bitarte egongo da abian gripearen aurkako txertoaren kanpainia. Bi dira xede-taldeak, alde batetik konplikazioak jasateko arriskua duten pertsonak (65 urte-ko gorakoak, haurdun dauden emakumeak, tratamendu immunosupresorea dutenak, diabetikoak eta gaixotasun kronikoak dauzkatena, bihotzekoak, biriketakoak eta abar) eta bestetik horiei gaixotasuna transmititu diezaizketen pertsonak (osasun

zerbitzuetan, zahar egoitzetan eta abarretan lan egiten dutenak).

Gripe gaixotasun infekziosoa izanik batzuentzat arriskutsua da konplikazioak eragin diezaizkielako horregatik da garrantzitsua hauen-tzat txertatzea.

Txertoa nahi duenak osasun zentrora joan behar du ordua hartzerako eta normalean momentuan bertan egiten da. Medikuek txertoa jartzera animatzen dute geroko konplikazioak saihesteko.

KIROLA ■ 5

Lasarteoriarrak garaile larunbatean jokaturako pilota partidetan

GIZARTEA ■ 5

Solaskide egitasmoko taldeak ikasturtearekin batera martxan

ANAIAK
JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA



Eguerdietan ere hartzen dugu jendea, ordua aurrez eskatuz gero.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g · Tel.: 943 370845 · LASARTE-ORIA

II. eta III. mailetan lasarteoriarrak garaile larunbateko pilota partidetan

TXINTXARRI

Larunbatean, irailaren 27an senior mailako eskuz binakako pilota partidak izan ziren Michelinen. 12:00etan hasi ziren, lehenengo hirugarren mailakoek jokatu zuten, Intzakoak Tartaloetxeren aurka. Hauek bukatutakoan bigarren mailakoena hasi zen herriko Intzakoek Azkoitiarren aurka jokatu zuten.

Lehenengo partida azkarra izan zen, 30 minutu ingurukoa. 5 eta 22ko emaitzarekin irabazi zuten herrikoek. Haritz Urkia eta Xabi Arteagari ez zitzaizen asko kostatu Zegamakoei irabaztea.

Bigarren partida luzeagoa izan zen, ordu bete

iraun zuen gutxi gora behera. Aitor Aranburu eta Julen Urruzolak partida ona egin zuten Azkoitiarren aurka. Hauek ez ziren makal ibili horregatik gogor aritu behar izan zuten lasarteoriarrak baina azkenean 11 eta 22 irabazi zuten ikusteko pilota izan zen partidaren.

Ostiralean ere herrikoen partida izan zen Alkizan. Lehenengo mailako jubenilak aritu ziren jokatzen, Jon Peio Artetxe eta Unai Ituarte. Hauen partida larunbatekoak baino gogorragoa izan zen beste bikoteak maila handia zuten eta horrek garaipena lortzea ezinezkoa egin zuen. Azkenean 22 eta 8ko emaitzarekin bukatu zuten, beraz, gogorra ostiraleko partida ere. •



Irudian larunbatean Michelinen jokaturako II. mailakoen partida.



Koala txartelak irabazi ditu 1.600 euro Ostadarreko Porran

Ostadar Kirol Fundazioak Vueltako sariak ostegunean banatu zituen Jalgi kafe antzokian. Hau izan baita puntu gehien lortu dituen taberna.

Koala txartelak bi sari eskuratu ditu: hiru handietako sari nagusia 1600 euro eta Vueltako Porrako irabazlea

360 euro. Bigarren saria, 180 euro, bi txartelen artean banatu behar izan dute: Iradi eta Moxolo, biek 1061 punturakin. Jalgik, taberna irabazlea izategatik, Urgull jatetxean bi pertsonentzako afariak irabazi ditu. Ostadarrek parte hartzaile guztien artean 8 urdaiazpikoa banatu ditu. •

Ostadarreko Futbol Eskolak asteazkenean egingo du lehen entrenamendua

Futbol Eskolako lehen saioa asteazkenean, urriaren 1ean, izango da Michelingo instalazioetan. Entrenamenduak asteazkenean izango dira arratsaldeko 18:00etatik 19:00ak bitartean.

Aurten 8 eta 10 urte bitarteko 60 haur baino gehiago arituko dira entrenatzen Michelingo zelaian. Horregatik, eta ordu horretan instalazioetan dauden gainontzeko erabiltzaileak ez gogaitzeko, antolatzaileek haurrak 17:40ak baino lehen ez bidaltzeko eskatu dute.

“Aurten, izena eman duten haur guztiak onartu ditugu eskolan, inor kanpoan geratu ez zedin. Espero dugu aurten ere, Eskolan arituko diren haurrek kirola egiten ondo pasa dezaten”. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Espero baino gehiago erabili da hiri-busa

■ Bataz beste 500 lagunek baino gehiagok erabili du egunero.
 ■ Erabiltzaileek premiazko zerbitzua dela diote oro har.

Jon ALTUNA

Zabaleta eta Antxisukoek erabili dute gehiena hiri-busa, aurreko astean, Lasarte-Oria erditik urruti bizi direnek. Martxan jarriko balitz erabiliko luketela esan dute ia denek, oro har; ideia ona iruditzen zaie.

Bi mila lagunek erabili zuten aurreko astelehenean ostegunera bitartean hiri-busa, Arretxatzen Udalarekin batera Mugikortasun Iraunkorraren astea antolatzen ari den Ingurugiro-Zerbitzuen kooperatibak emandako datuen arabera. Mikel Urruzola Arretxatzen arduradunak adierazi digunez, espero zena baino askoz gehiago erabili da. "Goizean goizetik ibili dira herritarrek hiri-busean, lehenak, institutura eskolara joaten diren gaztetxoak, gero eguerdi aldean ere nahikoa erabili da eta batez ere Getatik aurrera 9ak bitartean izan du bidaiari kopuru handiena".

Nobedadea

Urruzolak aitortzen du asko izan direla doan delako eta nobedadeagatik erabili dute-nak, baina hori ere, zerbitzu hau ezagutzera ematea alegia, izan da Mugikortasun Iraunkorraren astean hiri-busa probatzearen helburuetako bat. Beraz balorazio oso baikorra egin dute antolatzaileek. Zabaleta auzokoek erabili dute gehiena, Antxisukoek ere asko erabili dute eta Zumaburuko geralekuan ere herritar asko igo dira autobusera. Uste baino gutxiago erabili dira osasun-etxe aurreko geralekua eta Goiegikoa.

Ostegunean arratsaldeko 6etan hartu genuen Hiri-busa Zaharren Etxe aurrean Oria alderantz. Beteta zihonan eta nahiko lan zuen Amaia Otazua Arretxatzen-eko teknikariak erabiltzaileen datuak biltzeko. Hauen ezaugarriak, adina, eta nondik nora zihozan jaso zituzten ostegunean, bi teknikari, gero datu horiek aztertu

eta zerbitzua jartzen bada erabiltzeko.

Erabiltzaile gehienek uste dute, batez ere Zabaleta eta Antxisukoek beharrezko zerbitzua dela. Antxisura bidean emakume heldu batek gogoratu zigun 15 urte daramatzatela zerbitzua eskatuz eta berriro sinadurak bildu behar badira bilduko dituztela.

Asko dira zaharrentzat, ibiltzeko zailtasunak dituztenentzat oso erabilgarria izango dela ziotenak. Bikaina, pozgarria, oparia, zoragarria, oso ona, primerakoa, denetarikoa erantzunak jaso genituen zerbitzuari buruz, denak aldekoak. Gainera, aurreko astean ez zen ordaindu beharrik, baina gehienak ordaindu behar bada ere erabiliko dute-la esan ziguten.

Baina badira onura sozialari begiratzen diotenak ere, ume batekin Antxisutik erdi-aldera zetorren emakume gazte batek zera esan zigun, hiri-busa martxan jartzearekin Lasarte-Orian auto gutxiago badabil askoz hobeto, gutxiago kutsatuko dela eta dabiltzanak lasaia igo ibiliko direla.

Gidarien zailtasunak

Autobusean bi Amaia topatu genituen, Amaia Otazua erabiltzaileak kontatu eta euren datuak jasoz eta Amaia Muñoz gidari. Gidariak kontatu zigun normalean baino jende gehiago dabilela eta zailtasunak zituztela itzulria ordu erdian, atzerapenik gabe, egiteko. Baina bere ustez ordu erdiro izatea ondo dago, zerbitzu on bat eman nahi bada eta gero, martxan jartzen denean, jartzen baldin bada, ordutegia beteko dute-la. Amaia gidariak esan zigun pazientzia handiko pertsonak behar direla hirietan lana egiteko, lan zaila dela, jende asko dabilelako.

Itzuli osoan joan zen autobusa beteta. Batzuek zioten pisuarekin doazenean edota eurria ari duenean erabiliko luketela. Beste batzuek, beti. Zabaletara igo zirenak eta ber-



Erditik urruti bizi direnek, Zabaleta eta Antxisukoek erabili dute gehien hiri-busa.



Ostegunean erabiltzaileen ezaugarriak eta dituzten premiak jaso zituzten.

tan hiri-busa hartu zutenak, esaterako: zorutzen zeuden hiri-busa jarriko duten esperantzaz. Auzotar batek esan zigun denda txiki bat bakarrik dela auzoan eta enkarguak egitera jaisten direnean autoa eta karrotxoa hartu beharra dutela, hipodromoan edota Sasoetan aparkatu eta erosketak egin. Beste baten ustez jendeak erabiliko luke, jende heldu asko baita auzoan, autorik ere ez duena. Hirugarren batek zioen, autoan jaitsita ere ez dagoela erdian aparkatzerik, eta adindu asko daudela jaisterik ere ez daukatenak.

Zabaletan, saltsa

Auzotar batek aitortu zigun egunero erabili duela eta beti bete bete ikusi duela Zabaletan. Beste batek aipatu zigunez poz handia eman die, saltsa izan dute auzotarren artean autobusa dela eta. Honek esan zigunez Udalarik egingo dizkio ten eskaeren artean daude maldak erdian geraleku bat jarritza inguru horretan bizi direnentzat eta ahal bada ordutegia luzatzeko proposamena, hau

da azkena ez dadila 8.30etan izan, beranduago baizik.

Berriro Oria aldera abiatu eta bidaiari bat erdiguneko merkatarietaz gogoratu zen, hiri-busari esker hobera egingo dutelako. Lasarte erdian aparkatzeko zailtasunen ondorioz, merkatalgune handietan erosketako joera ugari baita.

Ume koxkorrekin zihonan emakume baten ustez beharrezkoa da. Oriatik erdira joango litzateke oinez baina gero iluntzean umearekin bueltatzea gogorrago egiten zaio. Autobusik ez denez, autoan egin ohi du joan etorrira. Ondoa beste emakume batek bere alaba elbarriak asko erabiliko lukeela kontatu zigun. Berak pisuarekin baldin badabil, soilik.

Autobusen garajearen txoferra aldatu zuten. Amaia jaitsi eta Jesus Zubeldiak hartu zuen. Egunero gidatzen zuen azken orduan, erabiltzaile gehiena zebilenean. Bete beteta joan dela kontatu zigun, batez ere azken itzulietan eta denboraz justu xamar ibili direla, aurre ikusitako

ordutegia baino beranduago.

Antxisun telefono dei bat jaso zuen gidariak, erabiltzaile batek deitu zuen hurrengo egunean goizeko bederatzietan Arranbideko geralekura busa joateko eskatuz. Bista eder eta Arranbiden hartzeko telefonoz deitu behar zen.

Herriarentzat ona

Besteak beste, adindu batzuek sartu ziren Antxisun. Gizona aparkatzeko dauden arazoetat mintzatu zen: "Herriarentzat dagonik onena izango da, aparkalekuak ere gehiago izango dira". Emakumeak oso ondo datorkiola esan zigun, batez ere erosketak egiten dituztenean autorik ez du eta batzutan Donostiako autobusa hartu behar izaten du, baina gutxitan, "berdina pagatzen dugu Donostiara joan eta Lasartera joan. Beraz herriko autobusa jartzen bada eta merkeagoa bada, erabiliko dugu". Emakumeak aipatu zigunez Donostiako autobusak Oriako kaperan uzten ditu eta handik ere oraindik bide luzea dute etxera. Adinduentzat gerta zitezkeen onena litzateke bere ustez. Gauza on asko ikusten dizkio emakumeak, Oria eta Lasarte lotuko dituela ere esan zigun. Antxisukoekin batera jaitsi ginen gu ere Udaletxe ondoan eta Zabaletarantz abiatu zen egun hauetan bizitza handia izan duen autobusa.

Astelehenean martxan jarri zen egunean, 373 lagunek erabili zuten, asteartean 553k, asteazkenean 635k eta ostegunean 571k. Ostiraleko daturik ez genuen lerro hauek idazterakoan, baina egunero batz besteko 500 lagunetik gora igo dira hiri-busera, bultzatzaileek uste zutena baino askoz gehiago. •

Ohiturak euskalduntzen duelako

Solaskideko taldeak dagoeneko martxan daude, euskaraz mintzatu nahi duenak lekua du oraindik

Zenbat aldiz justifikatu dugu "ohitura" hitzez bi euskaldunen erdarazko hizketa? Zoritxarrez, sarritan.

Euskaldunok egiten ez dakiguna. Guk euskaraz egin nahiz eta parekoak erdaraz erantzun. Eta hortxe galtzen gara.

Hain naturaren aurkakoa iruditzen zaigu egoera hau, hain edukazio txarrekoa, ezin dugu egoera hori mantendu eta bigarren hitzerako guk egiten dugu espainolez. Gure hizkuntzarekiko sumisioa izugarria da.

Inoiz ez dugu inor gurera erakartzen, beti amore ematen dugu. Batzuetan kontzienteki eta horrek gaizki

sentiarazten gaitu. Eta amore ematen ez dugunean ere ez gara eroso sentitzen. Egoera bortxatzen ari garen zentzuzioa dugulako.

Jarrera honekin mesede gutxi egiten diegu beraien burua euskalduntzen hainbeste ahalegin egin dutenei.

Poliki hitz eginez, hasieran pazientzia pixka batekin, baina egoskor xamar mantenduko bagina gurean, betirako lagun euskaldun bat izango genuke eta berari egindako ahaleginaren asea geratuko litzaioke.

Argi dago hizkuntza ikastea baino zailagoa dela hitz egiteko ohitura hartzea.

Sarritan saiatu gara mul-



Solaskide egitasmoa tresna bat da "euskaldun oso" izan nahi duen horri laguntzeko, bultzadaxoa emateko.

tzoan euskara irakasten baina gutxitan pertsonak euskaldun izan daitezten.

Frustrazio handia behar du hainbat urtetan euskara ikasten aritu eta inoiz ez euskaldun izatera iristea.

Euskara ama hizkuntza dugunok zor handi bat dugu beraiekin.

Beraien bizitzan, etxean, lantokian, lagunartean... euskaraz egin ahal izaten lagun-duko bagenie....

Bai txindurri lana da hasieran baina domino baten efektua lor dezakegu.

Gaur egun gehienek dute lankide bat, bizilaguna, haurrak, beste gurasoak, bikoteak... euskaldunak. Horiek ere inplikatu beharko genituzke euskalduntze horretan. Trautak egin beraiekin. Helburu txiki eta lorgarriak markatu eta jarraipena egin ea nola moldatzen diren. Hortxe dago domino efektua.

Bestalde, helduentzat sortzen diren aisialdi ekintza euskaldunetan integratzen saiatu behar dugu. Bide hau batzuk naturaltasunez egin dute. Antzeri eskolan, koruan, Oinatz taldean antolatzen ditugun ikastarotan. Makillajea, batukada, taloak...

Aurrerantzean ere hala behar duela uste dugu. Euskal-

dunak dauden jardunetara etortzera animatu. Zenbat eta ordu gehiago eskaintzen dioten euskararen erabilerari, lehenago lortuko dute helburua.

Lasarte-Oria ikastaroan bikotean aritzeko frogara martxan jarri genuen eta oso ondo funtzionatu du. Behin hizkuntza maila bat izan ez gero, astean behin ordubeteko saioa gustuko duten ekintza baten inguruan, oso harreman politik sortzen dira eta euskaldun berriak aurrerapen nabarmenak ematen ditu.

Solaskide tresna bat besterik ez da "euskaldun oso" berri hori denon artean lortzeko. Zubi lan bat. Bultzadaxo bat. Denbora epe batean, gero beraiek egingo dute bidea bakarrik.

Ikasturte honetan programa honetan aritzeko prest gaudete, jarri harremanetan gurekin. Horretarako Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4) deitu telefonoz 943 37 14 48 edo galdetu euskaratzean. •

MAILU ARRUTI



Solaskideko euskaldun zaharrak, bilera egin zuten Arrieskalleta elkartearen datorren kurtsoari dagokien berrikuntzen eta nobedadeen berri izateko

EUSKARAREN MARATOIA 7

Dagoeneko kamisetak salgai! Ttakunen eta Jalgin

Korritzeko modukoa!

www.euskararenmaratoia.com



Negu honetan,
ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailleekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, berruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz balitzeko, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.Urekin harikuntza alfa egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Ikasteko sekula ez da berandu

- "Hasieran urduri nengoen baina jaialdi polita eta hunkigarria izan da neretzat"
- "Betidanik gustatu izan zait akordeoia baina inoiz ez dut izan ikasteko aukerarik"

Helena FERRERAS

Duela sei urte hasi zen Akordeoi ikasketekin Mariano Valles ia kasualitatez. Betidanik gustatu izan zaion instrumentua den arren 79 urterekin hasi zen ikasten eta orain egunero ordu beteko tartea gordetzen du partiturretan dituen abestiak jotzeko.

Nolatan hasi zinen akordeoia jotzen?

Emaztearekin jubilatuen koroa joan ginen, solfeoa behar zela esan ziguten eta Kulturetxean izena emateko. Emazteak ez zuen nahi izan baina ni apuntatu nintzen. Gero ez zela beharrezkoa esan ziguten baina nik jarraitu egin nuen. Nere ilobak akordeoia jotzen zuen baina saldu egingo zuela esan zidan eta "nik erosiko dizut!" esan nion. Azkenean ez zuen saldu eta Orián erosi nuen bigarren eskuko bat 185.000 pezetagatik. Orduan hasi nintzen jotzen eta ikasten. Bi urtez aritu nintzen Kulturetxean ikasten, lehenengo urtean Iñigorekin solfeoa eta hurrengo biak Aitor Lasarekin akordeoia jotzen.

Hori duela zenbat denbora izan zen?


79 urterekin hasi nintzen eta orain 85 dauzkat, urte bat solfeoa eta beste bi akordeoia ikasten ibili nintzen eta emaztea hil zenean utzi nuen eta hori da ikasi dudana. Baxuak jotzen ez nuen ikasi, maila horretara ez nintzen iritsi horregatik kontzerturako Lasak lagunduko dit baxuekin, bien artean egingo dugu.

Orduan asko pentsatu gabe hasi zinen, solfeoa lehenengo, gero ilobaren akordeoia hartu nahian...

Bai, beno, betidanik gustatu izan zait akordeoia baina inoiz ez dut izan ikasteko aukerarik eta orain bi dauzkat. Ikasketak utzi nitueanean Oriara joan eta 370.000 pezetako berri bat erosi nuen.

Beraz, asko gustatzen zaizu, ez da?

Bai, egunero ordu betez jotzen dut neure kabuz. Egun hauetan ere Aitorrekin aritu naiz entsaiatzen jaialdiko pieza, *Maritxu*. Astean behin bildu gara entsaiatzeko.



Mariano Valles, Aitor Lasaren ondoan zuela, hunkituta jaso zituen entzuleen txaloak pieza amaitutakoan.

tzen zenuen bitartean.

Tekla asko dauzka gainera akordeoi batek!

Bai, 120 baxu eta beste aldean hirurogei bat, horiek dira nik jotzen ditudanak. Trikitixa jotzea pixka bat errazagoa da txikiagoa delako eta tekla gutxiago dauzkalako.

Zenbateko pisua dauka?

Nik dauzkadanek 9 kilo dituzte, baina badaude handiagoak.

Bi akordeoi dituzu, zein da hobe zaharra ala berria?

Neri zaharraren soinua gustatzen zait gehiago, baina berria modernoagoa da. Zaharrak soinu politagoa dauka baina esan didatenez hori erabileragatik da, denborarekin soinu politagoa edukitzen dute. Beraz, berria erabili egin behar da.

Musika gustuko duzu, jotzeaz gain entzun ere egiten duzu?

Bai, baina gehiengo akordeoi musika da, adibidez, Kaxiano, Tapia eta Leturia, Kepa Junkera, Iker Goenaga eta Iñaki Bizkai, azken honen musika zoragarria da.

Abesti bat aukeratu beharko bazenu...

Ez nuke jakingo... bat aukeratu beharko banu Iñaki Bizkaiari bat aukeratu nuke. Oso politak dira, ni baten bat jotzen ikasten ari naiz.

Beste zaletasunik ba al daukazu?

Bai, akordeoiaz gain bizikletan ibiltzea gustatzen zait. Bizikletan asko ibili izan naiz. Trofeo asko dauzkat, ez dakit zenbat baina asko. Indurainen argazki bat autografoarekin ere bai, nere ilobak ekarritakoa. Eman didaten azken trofeoa Lokeko bat da eta Michelinen eman ziguten beste bat ere maitasun handiarekin gordetzen dut, hango zikloturistak ginenekoa da 1970. urtekoa.

Sei urteetan Donostia-Candanchu egin izan nuen, Yesaraino lehenengo egunean eta bigarrenean Candanchuraino. Gero Candanchutik Lasarte-Oriara zappi ordutan etorri ginen. Asko ibiltzen ginen garai hartan baina nere emazteari ez zitzaion asko gustatzen, arriskutsua da karreteran txirindan ibiltzea eta beldur-tu egiten zen. •

Aparteko ikuskizuna akordeoi joleek eskaini zutena



Jende asko gerturatu zen Zero Settek larunbatean egin zuen jaialdira. Bosgarrena izan da azkeneko hau eta urtero moduan arrakastatsua.

Aurtengo gonbidatuak Hungariako Zoltan Orosz eta Sabadelleko Kontserbatorioko Akordeoi Orkestra izan dira. Biak mundu mailan ezagunak eta ospe handikoak, Zoltan Orosz

akordeoi jole onenarikoa dugu eta Sabadelleko kontserbatorioko Orkestrakoek sari ugari jaso dituzte estatu mailan eta atzerrian.

Emanaldi bikaina eskaini zuten guztiek, jaso zituzten txalo zaparradak frogatu moduan. Amaitutakoan, oroigarriak jaso zituzten zuzendariak, Zoltanek, Marianok eta Aitorrek. •

Ondo moldatzen zarete elkarren artean.

Bai, oso ondo moldatzen gara, oso jatorra da. Baina Lasartetik alde egin zuen Billabonara eta orain han ematen ditu klaseak.

Zein da gehien gustatzen zaizun pieza?

38 inguru jotzen ditut eta denak gustatzen zaizkit. Batzuk besteak baino hobeto jotzen ditut baina denak ditut gogoko.


Zaila izango da akordeoia jotzen ikastea?

Bai, beno neri orain ez zait zaila egiten. Hasieran beti da zailagoa, solfeoarekin jo behar genuen eta zaila zen teklak jotzea partitura begira-

Egunero

Erakusketa

NOELIA CRUJEIRAS margolaria-
ren margoak erakusgai. Jalgi
kafe-antzekian, egun osoan.



Ostirala, 3

Antzerkia

Usurbilgo Txerriki Taldeak
LIDER BERRIA obra eta Lakrikun
Antzerki Taldeak GREBAN
GAUDE obra (Kultur Errota)
eskainiko dituzte Landaberri
Antzerki eskolaren ikasturte
hasierako ekitaldi bezala.
Sagardotegi kalean eta Jalgi
kafe-antzekian, 20:00etatik
aurrera. Euskaraz.



*Guaraná taldearen kontzertua
Lasarte-Orian*

Gazteria sailak antolatuta, Guaraná taldeak disko berria *De Lao a Lao* aurkeztuko du Lasarte-Orian. Honetaz gain, aurreko disketako abestiak ere eskainiko ditu, hala nola, *En la casa de Inés*. Sarrera doainekoa da.

LARUNBATA 4, 23:00ETAN
ANDATZA PLAZAN

Ostirala, 17

Jam sesioa

Hilabeteko Jam sesioan jazz-a
eta blues-a jotzeko eta entzu-
teko aukera egongo da.
Oraingoan, DINBI DANBA
talde izango da gonbidatua.
Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean



Larunbata, 25

Musika

Bad Sound System taldeak
dub, reggae, dancehall eta
ska musikaz beteko du Jalgi
kafe antzokia. Ondoren DJ
saioa eskainiko da 3:00ak
arte. Jalgin, 22:30ean.



**EUSKARAREN 7.
MARATOIA**

Animatu eta
hartu parte!

Parte hartzeko
aukera asko daude!
Sartu
www.euskararenmaratoian.com web
orrialdean eta eman
zure izena!

Kamisetak ere
dagoneneko salgai
daude Ttakunen eta
Jalgin. Haurrenak 10
euro balio dute eta
helduenak 15.

Informazio gehiago
Ttakunen, (Geltoki kalea 4)
edo
943 371448 telefonoan.



Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik
11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzeak

Udarako oporren ondoren
hilabete honetan bestetan
bezala odol ateratzeak hilabe-
teko azken astelehenean, hau
da, gaur egingo dira Osasun
Zentroan, arratsaldeko
18:30etik 21:00etara. Anima
zaitezte, odola ordezkaezina
da eta!

Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan,
Ttakunek antolatutako txoko-
tan egondako haurren argazki-
ak jasotzen dituzten Cdak
urriaren 6tik aurrera eskuratu
ahal izango dira Ttakunen
ludotekan. Ordutegia:
17:00:20:00etara.

Tenerifera bidaiak

Biyak Bat zaharren egoitzak
Tenerifera bidaiak antolatu du
urriaren 14tik 24era. Hote-
lean mantenu osoa izango
dela adierazi digute arduradu-
nek, baita islaz gehiago goza-
tu nahi dutenek aukerazko
txangoak izango dituztela ere,

hala nola, Teideko parke
nazionalera edo Santa Cruze-
ra. Prezioa 599 eurokoa da
eta izen ematea Biyak Bat
zaharren egoitzean egin
behar da. Bidaiari buruz
gehiago jakin nahiez gero
bertara gerturatzea besterik ez
daukazue.

**San Pedro Parrokiako Kate-
kesia**

Katekesia egin behar duten
haurren izena irailaren 17tik
aurrera eman behar da San
Pedroko parrokiari. 943 37 30
08 edo 669 76 22 52 telefo-
noetara deituta egin daiteke.
Ikastaroak larunbatean hilean
behin izango dira lehenengo
mailakoentzat, larunbatero
bigarren mailakoentzat, hiru-
garren mailakoentzat (lehen
jaunartzeakoak) asteaetan eta
5, 6 eta 7. Mailakoak astea-
reetan 18:30ean.

Xumela korua

Ikasturteari hasiera emanez,
gaurtik hasita, astelehenero

bilduko dira Xumela koruko
kideak. Astelehenero arratsal-
deko 19:30ean bilduko dira
Landaberri BHIko egoitzan.
Interesa duenak agertzea bes-
terik ez du.

**Emakumeen kirola susta-
zteko diru laguntzak**

Lasarte-Oriako Udalak kirol
federatuen emakumeen parti-
zipazioa indartzeko asmoz,
Kirolen Batzordeak 18.000
euroko zenbatekoa duen
laguntzen egitasmoa onartu
du.

Irailaren 30ean amaitzen zaie
herriko kirol elkarteei Kirol
federatuen emakumeen parti-
zipazioa indartzeko asmoare-
kin sortutako laguntzen
eskaera aurkezteko epea.
Laguntza hauek arautzen
dituzten oinarriak interesatu-
rik dauden elkarteentzat esku-
ragarri daude Udalaren
Kiroldegiko bulegoetan.

LOKEko tenis eskola

LOKEko tenis eskolak entre-

namenduak hasi ditu eta 7 eta
8 urtetako taldean lekua dago
oraindik. Beraz, talde honetan
izena emateko epea ireki da,
Michelingo kirol gunean egingo
da astelehenero ostegune-
ra, 18:30etatik aurrera.



Kilometroakera autobus

Aurtengo edizioa Iruran
izanik, eta Lasarte-Oriako
autobus konpainiak zerbitzu
berezia jartzeko asmoa
duenez, Ttakunek ez du
antolatuko autobusik.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea



Aterpearen eskerrak

Factory azoka antolatzen
lagundu zutenei eskerrak:
Lasarte-Oriako udalari bere
disposizioagatik eta finan-
tazioagatik: Landaberri
ikastolari megafonia uztea-
gatik; Rural Kutzari logisti-
kagatik; GATC-ri, Gorkaren
bidez antolaketa kordinatu
zuelako; Zumaiako Zelairi
bere talasoterapiari bi ego-
naldi eskaini zizkigulako
guk bertaratuen artean zoz-
ketatu ahal izateko; Jon
Lasa eta bere ikasleei, musu
truk festa girotu zigutelako;
eta nola ez, bertara hurbil-
du zirenguztiei.
Guztietan, mila esker!



Usurbilgo Txerriki taldekoek *Lider Berria* lana kalean eskainiko dute. Irudian Ixabel Agirresarobe eta Alex Tello.

Antzerki Eskolak VII. ikasturteari hasiera emango dio

Landaberri Antzerki Eskolak ikasturte berriari hasiera emateko bi antzezlan ekarriko ditu Lasarte-Oriara. Ostiralean 20:00etan Sagardotegi plaza inguruan zerbait arraroa ikusten baduzue, lasai eta jarraitu ikuskizuna, Txerriki taldekoak baitira. Usurbildarrek "*Lider Berria*" lana kaleratuko dute. Ondoren, 21:00etan Lakrikun antzerki taldeak "*Greban gaude*" antzezlan aurkeztuko du Jalgi kafe antzokian.

Gidoiak prestatzeko, koreografiak lantzeko eta trapuak ateratzeko garaia iritsi zaie Landaberri Antzerki Eskolako-
ei. Gaur bertan ekingo diote gaztetxoek VII. ikasturteari. Helduek, berriz, aste batzuk daramate entsaiatzen Euskaren Maratoia prestatzeko, beraz hauek martxa hartu dute dagoeneko.

Antzerki Eskola urtetik urtera handitzen eta sendotzen doa. Horren isla da, aurtengo ikasturtean izena eman duten ikasle kopurua, garaikidea egiteko, ia 300 antzezle eta dantzari, 27 taldeetan banaturik.

Adin guztietarako eskaintza

Aurreko urteetan bezala Landaberri ikastetxeko 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteek, eta helduek dantza garaikidea eta antzerkia egiteko aukera izango dute. Baina, aurtengo ikasturteak berrikuntza bat izango du: Landaberri eta Ttakun K.E.ak elkarlanean 16 urte gorako gazteei antzerkia eta dantza garaikidea egiteko aukera eskainiko diete. "Hama-sei urteko gazteak DBHa amaitu eta Antzerki Eskolan

jarraitzeko aukera eskaintzeko asmoz, Ttakunekin batera, gazteen taldea sortu dugu aurten", dio Kontxu Yartzak Eskolako kideak. Dagoeneko 30 bat gazte izena eman dute bai antzerkia egiteko, bai dantza garaikidea egiteko.

Helduentzako eskaintzak

aurten ere arrakasta izan du, herriko 40 bat lagun elkartu baitira taulara ateratzeko gogoz. Aurten, iaz bezala, bai antzerki eta bai dantzako taldeek goizez edo arratsaldez aritzeko aukera dute. Eskolako arduradunek azaldu dutenez, gazteen edo helduen taldean

izena emateko epea irekita dago oraindik. "Eskolak beste gauzen artean, aisia euskara hutsean egiteko aukera eskaintzen du", diote arduradunek, "aurten ere, deialdi berezia euskaldun berriei egin nahi diegu, uste dugulako guztiiontzat oso aberasgarria izan daitekeela".

Beraz, badakizue, gorpuzta edo lotsak astindu nahi izanez gero Landaberri Antzerki Eskolak eskaintza zabala du.

Herriatik at

Iaz Antzerki Astean taularatu zituzten dantza eta antzezlan guztiek harrera ona izan zuten lasarteoriatarren artean. Baina, Garraxi Ixilak lanak arrakasta berezia izan du. Lan hau Andoainen estreinatuta, ondoren herrian eskaini zuten eta gero etorri dira eskaerak herriatik at: Zaldibi, Mutriku, Oiartzun, Usurbil, Azpeiti...

Antzerki Eskolaren arrakastaren errudunak ondorengoak dira: Maider Oiartzabal dantza garaikideko irakaslea; Mertxe Rodriguez eta Joxerra Fachado helduen taldekoak; Estitxu Garmendia, Amaia Tejeria, Bea Egizabal eta Kontxu Yarza txikien irakasleak eta Mikel Sarriegi gaztetxoaren irakaslea.

Aurten gazteen taldeko arduradunak Enara Yeregi eta Uxue Loinaz izango dira. Orain arte Eskolako ikasle izandakoak. •

"Kaleak bizirik mantendu eta kalea bizi nahi dugu. Kalea da gure eszenatokia"

Usurbilgo Txerriki antzerki taldeak *Lider Berria* antzezlan eskainiko du, Sagardotegi plazan eta inguruko kaleetan, ostiralean iluntzeko 20:00etan.

Iaz Usurbileko kale-antzerki egunean herriko jendarekin lana egiteko asmoz sortu zen talde hau. "Egun horretarako taldeari izena jarri genion, Txerrikiak. Izen oso egokia, polita eta fina", dio Ixabel Agirresarobe taldeko kideak. Talde amateur honek ez du urtea eta dagoeneko finkatu egin da: "kale-antzerki eguna egin eta herriko festetako beste antzezlan bat eskatu ziguten egiteko, orain, ingurugiroaren gainean beste bat prestatu behar degu... egia esan, enkargu bidez gabilta. Buru belarri dabil taldea".

Kale-antzerkia

Txerriki taldea kale-antzerki taldea bezala sortu zen: "kaleak bizirik mantendu eta kalea bizi nahi ditugu. Kalea, tabernak, dendak... dira gure eszenatokiak". Ostiralean eskainiko duten lana, *Lider Berria* Azpeitian estreinatuta zuten apirilean: "Usurbilen historia izan da, lehen aldia baita Usurbildik antzezlan bat ateratzen dela", dio parrez Alex Tello taldekideak, "apirilean estreinatuta eta hilabeteak pasa ahala obrak eboluzionatu du".

Alex Tello taldekideak lasarteoriatarrek antzerkia ikustera animatu nahi ditu: "zerbait arraro ikusten baduzue, jarraitu ea noraino eramaten zaituzten". •

Itziar CARRASCO